

A17 - Irtenbide teknologikoak espazioaren erronketarako

Sateliteen teknologiarako hastapenak, ingurune hurbilean gauzaten ari diren Zientziaren puntako proiektuak eta bilatzen diren diziplina anitzeko profil akademikoak ezagutzea eta demostrazio tekniko-zientifikoren bat ikustea.

Ikasurtea

- 1. Batxilergoa**
- 2. Batxilergoa**

Data

Adosteko

Lantzen diren irakasgaiak

Fisika

Matematika

Teknologia

Jarduera motak

Aurretiko prestaketa ikasgelan
Adituaren bisita erakundera

Hizkuntza

Gaztelera

Irismen geografikoa

Araba

Jarduera ematen duen erakundea

AVS

Curriculumaren edukiak

Fisika, Matematika eta Teknologia Industrialia.

- Esperimentuak diseinatzea eta egitea.
- Datuak biltzea eta ondoren tratatzea.
- Proiektu teknologiko bat garatzea, minisatelite bat sortzeko: fabrikazio-prozesuak, baliabideen plangintza, materialen azterketa, kontrol-sistemak eta programazioa.

Zer ikasten dute ikasleek?

Aholkularitza zientifiko-teknologikoa CANSAT proiekturako (irakasle zein ikasleei).

Baliabideak

Hitzaldi-gela edo ikasgela eta aurkezpenerako eta bideoetarako pantaila.

Garapena

1. SATELITEEN TEKNOLOGIARAKO HASTAPENAK.

Ikasleek sateliteei, AVS enpresari eta hizlariaren ibilbide profesionalari buruzko informazioa bilatuko dute ikasgelan, eta galderak prestatuko dituzte.

2. TALDEKA MINISATELITEAK EGITEA ETA AURKEZPENAK PRESTATZEA CANSAT PROGRAMARAKO.

Ikasle-taldek minisatelite bat diseinatu eta eraikiko dute azpisistema nagusiak egokituz (energia, sentsoreak, komunikazio-sistema), eta irakasleen epaimahai baten aurrean aurkeztuko dute.

3. ADITUAREN HITZALDIA ETA ZALANTZAK ARGITZEA.

Hizlariak AVSren proiektu aeroespazialeko garapen zientifiko eta teknologikoa azalduko du.

4. AVS-REN AHOLKULARITZA CANSAT PROIEKTUEI.

5. CANSAT LEHIAKETAN PARTE HARTZEA ETA JARDUERAK ZABALTZEA.

Ikasleek Cansat lehiaketara aurkeztuko dituzte proiektuak, eta egindako jardueren zabalkundea egingo dute.